



Fitxa didaktikoa

# Egin gogoeta argitaratzen duzunari buruz!



Zure lagunak kontatu dizunez...

Zer ondo pasatu genuen larunbatean! Urteko festarik onena izan zen

Beno, Juanek ez zuen hain ongi pasatu... kar-kar Argazkia egin nion igerilekuan erortzen ari zenean! Hori aurpegia!

Facebookera igoko dut; nolako barreak denek ikusten dutenean!

Inon ez argitaratzeko esan dit, baina ahoberoa da; ez da hainbesterako, ezta? Zer uste duzu?

Zer aholku eman diezaiokezu?  
Erabaki-zuhaitzak lagun diezazuke



Zure lagunak kontatu dizunez...

Baditut hondartzako nire oporretako argazkiak; primeran daude!

Argazki batzuk Instagrameko nire kontu berrira igo nahi ditut, ia ez baitaukat argazkirik nire profilean

Baina ez dakit, bainujantzian ateratzen naizenez...

Oraingoz jarraitzaile gutxi ditut, eta denok zarete lagunak edo familiakoak. Baina, ezagutzen ez dudan norbaitek ikusiko balitu? Zer egin dezaket?

Zer aholku eman diezaiokezu?  
Erabaki-zuhaitzak lagun diezazuke

is4k INTERNET  
SEGURA  
FORKiDS

Zalantzak dituzu? Aurkitu informazio gehiago eta gure laguntza-ildoak hemen: [www.is4k.es](http://www.is4k.es)





Fitxa didaktikoa

# Egin gogoeta argitaratzen duzunari buruz!

## ERABAKI-ZUHAITZAK IKASGELAN ERABILTZEKO ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

- Erabaki-zuhaitza inprima dezakezu (hobeto A3 tamainan edo handiagoan), eta ikasgelan ikusteko moduan jarri, ikasleentzat eskuragarri egon dadin.
- Erabili fitxa honetako elkarrizketak ikasleak egoeran jarri ahal izateko, horrelako arazoak aurkituz gero zer erabaki hartuko luketen hausnar dezaten.
- Anima itzazu erantzun bakoitza justifikatzera:  
Zergatik hautatu duzu aukera hori?  
Zer ondorio izango lituzke beste moduren batean jarduteak?

## Osatu saioa ikasitakoa bereganatzeko beste jarduera batzuekin: ideia batzuk proposatzen dizkizugu!

- Sareko pribatutasunari buruzko eztabaida antolatzea:  
"denak balio du Interneten 'Atsegin dut' gehiago lortzekotan?"
- Horma-irudi bat sortzea, taldeka, Interneten gure pribatutasuna galtzea saihesteko aholkuak sormenez irudikatzeke.
- Interneten ikertzea zein diren pribatutasun-aukerak sare sozial erabilienetan, eta taldean egitea aukera horiek egoki konfiguratzeko fitxa praktikoak.
- Interneteko egunkarietan bilatzea pribatutasuna galtzearen ondoriozko arazoak izan dituzten gazteen kasu errealei buruzko albistekak.

Halaber, gure **baliabideak** eta **material didaktikoak**  
erabil ditzakezu jarduera zabaltzeko; hemen  
dauzkazu: [www.is4k.es](http://www.is4k.es)

is4k INTERNET  
SEGURA  
FORKiDS

Zalantzak dituzu? Aurkitu informazio gehiago eta  
gure laguntza-ildoak hemen: [www.is4k.es](http://www.is4k.es)

